

Gradu Amaierako Lana

D.A.G.E.T _ 2018

ONDARROAKO MUSIKA PLAZAREN BERREGITURAKETA

I _ Iñaki Goikoetxea Burgoa // Z _ Iñaki Begiristain Mitxelena

I_KOKAPENA

01.Situazio planoa

II_ORUBEAREN BILAKAERA ETA FRONTOIAREN GARRANTZIA

01.Herriaren sorrera
02.Elizaren eraikuntza
03.1.Frontoia
04.2.Frontoia
05.3.Frontoia
06.Udala eta harmailak

III_AKTUAZIO EREMUA ETA HIRIGINTZA ARAUDIA

01.AI/HIE/02 eremua
02.Argazkiak lehen eta orain
03.Araudia_eraikinak kendu

IV_PROIEKTUAREN ESKU/HARTZEAREN OINARRIAK

01.Espazio publikoa
02.Plazaren mozketak
03.Atzealdeko horma
04.Eraikigarritasuna
05.Frontoi luzapena
06.Bolumenaren sorrera
07.Erlazio/ibilbideak

MEMORIAREN AURKIBIDEA

V_PROIEKTUAREN ARKITEKTURA DESKRIBAPENA

01.Kokapen Planoa	E 1/400
02.Altxaerak	E 1/400
03.Ikuspegi orokorra	—
04.Eraikin mota / antolaketa	—
05.Eskema funtzionala	—
06.Behe solairuko oina	E 1/200
07.Lehen solairuko oina	E 1/200
08.Musika Plazako oina	E 1/200
09.Luzetarako ebaketa merkatua	E 1/200
10.Luzetarako ebaketa aretoa	E 1/200
11.Ebaketa fugatua merkatua	E 1/100
12.Ebaketa fugatua aretoa	E 1/100
13.Erabilera anitzeko moduloak	E 1/50
14.Merkatuko moduloak	E 1/50
15.Moduloen despiezea	E 1/50

VI_PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN TEKNIKOA

E.Eraikuntza	01.Bolumenaren fatxada 02.Øihal horma
G.Egitura	01.Zimentazio planoa 02.Egitura planoa
I.Instalazioak	01.Suteak 02.Klimatizazioa 03.Ur hornikuntza+hondakinak 04.Saneamendua 05.Argiztapena 06.Musika Plaza

VII_ERANSKINAK

A.Maketaren argazkiak	01.Ekialde eguzkitzapena 02.Hegoalde eguzkitzapena 03.Mendebalde eguzkitzapena
B.Ikuspegiak	01.Plazatik itsasorantz

VIII_BIBLIOGRAFIA

_ Kokalekua

Egun Ondarroako Musika Plaza herriaren erdigunean kokatuta dagoen espazio publikoa da baina ez dauka erdigune izaerarik antzina izan zuen bezalaxe. Kota aldaketak, plazaren eta eraikinen egoera kaxkarrak eta frontoia- ren mantenu faltak, izaera publiko txikia duen espazio batean bilakatzen du.

Urteetan zehar Musika Plaza aparkaleku gisa erabilia izan da, plazaren egitura kalte- tut jasan behar zuen pisua baino gainkarga gehiago izatearen ondorioz. Plazaren berregi- turaketa beharrezkoa da, baita ordenazioz kanpo dauden eraikinak ordezkatzeko. Herria- ren erdigunean egonik, ibaitik hurbil, herri-gune historikoaren barne eta espazio publiko eta eraikin nagusietatik gertu, kokapen ezin hobea da plazaren berregiturake- ta bat egiteko eta herrian dagoen ekipamendu faltari aurre egiteko.

Plan Bereziak interbentzioa aurreikus- ten du Musika Plazan (HIE-AI-02 Andra Maria - Musika Plaza), udaletxeko eraikina eta har- mailak kenduz eta plaza berregituratuz, Ònda- rroako erdigune izaera emanez.

• Proiektua

Proiektua, inguruaren azterketa sakona egin eta espazio publikoaren berregituraketa- ren ondorioz eratorria izan da. Espazio publi- koaren analisiaren emaitzak eraikigarritasuna finkatzea ekarri du eta hortik ondorioztatu da programa xehea. Plazaren edertasuna bere zabaltasun eta irekitasunean oinarritua dago, antzina bezalaxe. Òndorioz, espazio publi- koaren azpiko solairuan kokatuko dira erabile- ra tertziariorako espazioak eta herrirako pro- posatuko diren ekipamendu publiko berriak, planak ahalbidetzen duen moduan, plazan bertan eraikin handirik kokatu gabe. Plaza azpiko espazio guztia birplanteatu da, egun dauden mugak egokiak diren aztertuz eta plaza azpian beharrezkoa den espazioa bereganatuz.

Herriaren erdigunea izango den gune bat proposatzen da, erabilerean artean lehentasun maila gorena merkatu izaera duen espazio berri batek izango luke, ondoren, herrirako aretoa eta azkenik 2 ekipamendu desberdinen elkarre- kintzatik eratorri ahal diren beste programa batzuek.

• Programa

Òndarroan ekipamendu falta handia dago eta daudenak ez daude oso egoera onean. Hori gertatzen da gaur egungo merkatuarekin, egoera ez da ona eta ezkutuan dago, ibai alboan apar- tatua. Honez gain, ekipamendu faltan artean, herrirako areto publiko batena da garrantzitu- suena, ez baitago horrelakorik.

Herriko ekipamendu beharrak aztertutik eta Musika Plazak herrian daukan kokapena kon- tuan izanda, erabilera anitzeko ekipamendu bat proposatuko da plaza azpian, goian aipatutako programez gain, beste hainbat asetzeko aukera izango duena.

Plaza azpiko eremuaren azalera mugatua da eta horrez ondorioz erabaki da eraikinak erabilera anitzak izatea, kale izaera bat bereganatuz.

Erabilera anitzeko ekipamendu honek, herriko puntu nagusi batean bilakatuko luke bai eraikina bai kanpo espazioa.

Guztia espazio publikoaren berregitu- raketaren ondorioz sortua izan da, herriaren erdigune izaera berreskuratzea helburu hartu- ta.

Øndarroa Bilbotik 65 kilome-
trora dago, eta Bizkaiko udalerrri-
rik ekialdekoena da, Gipuzkoareki-
ko mugan, kostaldean. 8.700 biz-
tanle inguruko udalerrria hau
Lea-Artibai eskualdearen barne
dago, bertako herririk handiena
izanik, nahiz eta azaleraz txikie-
netakoa izan (3,6 km²). Proiektua
herriko Alde Zaharren barne den
Musika Plazan dago kokatua.

Alde Zaharrean herriko 1.278
biztanle bizi dira 26.247m²-ko
azaleran, 261 etxebizitza hekta-
reako dentsitatearekin. Herriko
gunerik dentsuena da 684 etxebi-
zitzarekin. Øndarroa 1327ko irai-
laren 28an sortu zen eta arrantz-
aren inguruan eraiki dute herriko
ekonomia, batez ere azken mende-
tan.

Øndarroako Alde Zaharra
Urkamendi mendiaren magal batean
eraikia dago, Artibai ibaiaren
azken meandroan itsasora iritsi
aurretik. Herri planifikatu bat da
abaniko forman dauden hiru kalez
osatua eta guztiak talaia batean
elkartzen dira, bertan plaza (Mu-
sika Plaza) eta eliza kokatzen
direnak gaur egun, azken hau
herriko harresi gainean eraikia.
1794ko suteak herri gune historiko
ia guztia erre zuen eta eraikin
batzuk gelditu ziren soilik,
horien artean elizaren zati bat.
Urteak pasa ahala herria zabalduz
joan da mendi magaletan zehar
ibaiari jarraituz gaur egungo
egoerara iritsi arte.

* Memorian azalduko diren oin
plano guztiak orrialdeko eskubi
aldera daukate iparraldea, orrial-
deen eskuin goikaldean agertzen
den ikurrak (☰) adierazten duen
bezalaxe.


EUSKAL HERRIA
BIZKAIA




BIZKAIA
LEA-ARTIBAI



LEA-ARTIBAI
ONDARROA









Ondarroa 1327ko irailaren 28an, Maria Diaz de Haro Bizkaiko andereak emaniko Foruaren bidez sortu zen, nahiz eta aurretik bertan jendea bizi. Itsas marea goian zegoenean Ondarroak eskaintzen zuen irudia dugu hau. Garai hartan sortu ziren "villa" edo hiribildu guztiak bezalaxe Ondarroa ere harresiz inguratua zegoen. Harresiak 5 ate zituen bere perimetro osoan. Harresien barnean zeuden nekazarien ortu-ariak; kanpoaldean aldiz mahastiak.

Garai hartan, herriko ekonomia nagusia balearen arratza zen. Bi ontzitatuz baliatuz arrantzatu eta ekartzen zituzten baleak herrira, marea jaistean hondar gainean utziz. Bertan zatikatzen zituzten, atal guztiei etekina ateraz (bai janari gisa bai bale-olioarekin argizarietarako).

Ondarroaren sorreratik suposatu dezakegu herritarren aisialdiko jokoetako bat pilota-jokoa izan zela. Hasiara batean luzean jokatua eta erreferentzia arkitektoniko gutxirekin. Irudian ikus daitekeen bezala marea goian harreriaz baliatu ahal ziren, eta marea behean zegoenean, hondar gainean.











Gaur egun Ondarroako parrokia moduan ezagutzen dugun Andre Maria elizari begiratzuz, begi bistan nabarmentzen zaigu eliza bifasetan eraiki zela. Oinarriak alde batetik eta hauen gaineko eliza bestetik. 1335. urte inguruan hasi ziren elizaren oinarriak egiten eta elizaren hormen eraikuntza 1475. urte inguruan hasi zen. XVI. mende hasieran bukatu zuten elizaren kanpoaldea, baina 1740. urte arte luzatu ziren barnealdeko eraikuntza lanak.

Marea behekoan, ontziak hondar gainean gelditzen ziren eta eliza hondarrez inguratua gelditzen zen. Bertatik dator Ondarroako herriaren izena, "hondar-ahoa".

Marea behean zegoela baliatuz, espazio gehiago zeukaten hondar gainean edo eliza alboan pilota jokoan aritzeko. Aisialdi gune hori izan zen urteak pasa zirenean pilotalekua egiteko aukeratu zen gunea eta ondorioz suposatu genezake aurretik ere gune horretan pilota jokoak garrantzia zeukala.







0ndarroako lehen frontoia 1786ean bukatu zen eraikitzen, garai hartarako nahiko luzea zen (hamahiru koadro zeuzkan, zestan jolasteko egokia). Frontoiaren ezker horma hegoaldetik iparralderako norabidea jarraitzen zuen.

Kontuan izan behar da, gainera, pilotaleku hura hondar gainean eraikia zegoela. Gaur egungo Kanttoipe kalea ez zen existitzen eta hondarra besterik ez zegoen eliza eta Artibai ibaiaren artean. Beraz, itsasoa gaiztotzen zen edo mare biziak gertatzen ziren bakoitzean, frontoiaren hormek pairatutako tratua nahiko kaxkarrak izaten zen. 1782an eraikitzen hasitako frontoi hark ehun urte iraun zuen zutik.

Lehenengo frontoiak erreboterako hormak eta ezker horma eraikitzea ekarri zuen, lehenagoko pilota joko zabala aldatuz.






Aurreko frontoia egon zen toki berean eraiki zen berria ere. Frontisa Kanttoipe aldera, eta ezker horma egun Musika Plaza azpian dauden bulegoek daukaten norabide berean. Baina berezitasun aipagarri bat zeukan aurreko frontoiarekin alderatuz, itsasoaren eragina saihestu nahian, frontoi berriaren zorua altxatu egin zuten lehen solairu batera (4-6m artean).

XIX.mende bukaeran eta XX.-mendearen hasieran Ondarroan zabalgunek bat eraikitzen hasi ziren ibai alboan zehar, eliza itsaso/ibaitik babestuz.

Hala ere, laster iritsi zitzaion zahartzarora frontoi honi, elizako korreta eta frontisaren artean arrakala handi bat ateraz zen eta ezker horman hainbat pitzadura ateraz ziren. 1904an bota egin zuten.

Urteak pasa ahala, pilota-jokoa aldatuz joan zen eta garai honetarako joko zuzenean jokatzen zen, atzeko hormarik gabe eta pilotari guztiak norabide berean.







1907ko ekainaren 14ean onartu zen frontoi berriaren proiektua. Frontoiak 11 koadro eta erdi zeukan (46 metroko luzera) eta proiektuan luzapen bat egitea proposatzen zen Kanttoipe kalearen goialdetik (luzapena ez zen egin). Gaur egun ezagutzen dugun frontoi eta Musika Plaza 1908an eraiki ziren, nahiz eta ondoren aldaketa nabari bat izan udaletxe eta harmailen eraikuntzarekin.

3. frontoi eta plazaren altuera, 2. frontoiak izan zuen antzekoa zen. Lurretik igota zegoen eta oraingoan Kanttoipe kalearekiko bulego denda, zeuden plaza azpian. Plaza gainean, kioskoa desmuntagarria izan zen nagusi udaletxearen eraikuntzaraino. Berdina gertatzen zen frontoirako harmailekin, egurrezkoak ziren eta udaran kokatzen zituzten, pilota partidak jokatzen ziren denboraldian. Egurrezko 2 elementuetatik at, Musika Plaza espazio zabali, ireki eta gardena zen erabat, inongo oztoporik gabe.

Pilota-jokoak garrantzi handia hartu zuen herrian, zeukan kokapena ikusirik. Herriko espazio erabilienetakoa bilakatu zen herritarren artean, eta horrez gain, Musika Plaza aisi gune nagusia zen.






1964ean udaletxe berriaren eraikuntzarekin Musika Plazan aldakuntza nabariak izan ziren. Udaletxe berriaren obrak frontoiaren luzera txikitu zuten 3 koadrotan (8 koadro eta erdian utziz) eta frontoiari erantsitako harmailak plazari zati eder bat kendu zieten.

Proiektuaren arkitektoa Castor de Uriarte izan zen eta 5.500.000 pezetako aurrekontua izan zuen. Udal eraikina lauki-zuzen formakoa da, behe solairua eta gainean beste birekin. Oin libreko eraikina da, egitura fatxadatik aldentzen delarik. Fatxada nagusiak frontoi aldera eta Kanttoipe kalera ematen dutenak dira, lehioz beteak. Beste biak, aldiz, nahiko itxiak dira, harrizko bukaera batekin. Frontoiari erantsitako harmailak aurrefabrikatuzko hormigoizko piezez egin ziren, 470 eserleku aurreikusiz. Aurretik zegoen kioskoa kendu eta berria harmailen azpialdeko kokatu zuten.

Udalaren lanek pilotalekua mozteaz gain lehen zeukan garrantzia kendu zioten, ezkutuan gelditzen baitzen. Plazaren zabaltsuna eta inguruak zuen panoramika ederra bertan behera gelditu zen.



"Ondarroako Plan Orokorra"-ean eta batez ere "Ondarroako Herri-gune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia"-n arautua dago proiektuaren eremua. Plan Orokorrak Alde Zaharrean kokaturiko eremu guztiaren xehetasunak bere esku uzten baiditu.

Musika Plaza Ondarroako herri-gune historikoaren barne dagoenez Plan Berezian arautua dago bereziki. Alde Zaharreko lur-zoru guztia hiri-lurzoruko kalifikazioa du eta 26.247m²-ko azalera dauka.


Musika Plaza Andra Maria elizaren inguruko babes gunearen parte ere bada proiektua kokatzen den eremua, eta honez gain, antzina Ondarroa ixten zuen harresiaren trazadura Musika Plazaren albotik pasatzen da (puntu arkeologiko bat izanez). Planaren arabera, egungo udaletxeko eraikina ordenazioz kanpo dago eta pilotalekuko harmailak inguruarekin bat ez datozen elementu bezala kalifikatuak daude. Plaza azpiko udal espazio ezberdinek ez daukate inolako babes mailarik eta birgaitzeko edo eraikuntza berri bat egitea aukera ematen du. Planak esku-hartze bat aurreikusten du Musika Plazan, plazaren berregituraketa bat proposatuz (HIE-AI-02 Andra Maria - Musika Plaza) eta bertan dauden udaleko eta plaza azpiko lokale-tako erabilerak (udal bulegoak, herri-azutegia, udaltzaingoa ...) beste eraikin batera lekualdatuz (Zeledonio institutua zen eraikinerari), plazan eraikin txikiren baten eraikuntza ahalbidetuz (kiosko antzekoa) eta plaza azpian 1.000m²-ko eraikigarritasuna gehienez baimenduz erabilera tertziario eta ekipamenduak jartzeko.


III.3 orrialdean, proiektua egiteko araudiak izan beharreko aldaketa garrantzitsuenak aipatzen dira.




LEGENDA

- Alde Zaharreko muga
- Harresiaren traza
- - - - - AI-HIE-02 eremua
- Plaza azpiko egungo lokalen kokapena






1908-1064 bitartean | 1964 geroztik gaur egunera arte



Øndorengo argazkiek Musika Plazak azken mendean izan duen aldaketa nabarmenda erakustera datoz. XX.mendearen lehen erdialdean plaza zabal eta erabilia zen, egun aldiz zatikatu eta gutxi erabilia da.



Araudiak dioen bezalaxe, lehendabiziko pausoa Musika Plazan kokatzen diren eraikinak kentzea da, ordenazioz kanpo baitaude. Horrela, aurreko orrialdeko argazkien ikus daitekeen zabaltasuna bereganatuko luke plazak. Hori horrela, egungo udal eraikina eta plaza azpian kokatuta dauden herri administrazioako bulegoak Zeledonio hezkuntzako institutura eramatea da asmoa, honen zaharberritzea egin ostean, eraikin bakar batean zentralizatuz herri administrazioiko eraikin txiki guztiak. Ikusi IV.1 planoak.


Hau eginik, proiektua garatzerako orduan hainbat aldageta garrantzitsu egin beharko lirarteke araudian.

-Eraikigarritasuna lekuz aldatu. Planak plaza azpian mugatutako 1000m²-ko eraikigarritasun zonaldea plazaren beste alde batera mugitu.

-Interbentzio eremuaren delimitazio malguagoa, mugak zabalduz.

-Solairua bat egiteko aukera plaza gainean, bolumen bat ateratzeko aukera emanez zonalde jakin batean.

-Material desberdinen erabilera, ez ohiko (herri ekipamendu) eraikin batentzat.



Zeledonio institutua

0ndarroako espazio publikoen sare segida azterturik, hondartzatik hasi eta Alde Zaharraren bukaeraraino daukan lotura ikus genezake. Sare horren erdian Musika Plaza kokatzen da, espazio publiko gogorra da eta bertan dago herriko frontoia eta udaleko eraikina. Ez da espazio oso erabilia, daukan kokapena eta bere egoerarengatik. Inguruko espazio publikoekin daukan lotura faltak, espazio publikoen sare horretan trabagisa ikusi ahal da. Alamedatik Kanttoipera doan lotura espazio da kezkarriena eta proiektuan landuko dena. Espazio publikoaren analisia izan da proiektuaren ardatz nagusia.

Aurreko atalean aipatu bezala, egungo udal eraikinak daukan erabilerak eta bere arloko guztiak Zeledonio hezkuntzako institutura eramatea da asmoa, honen zaharberritzea egin ostean. Nahiz eta udalari kokapena aldatu herriko erdigunetik hurbil egoten jarraituko luke, Alde Zaharretik gertu, eta herriko ekipamendu garrantzitsuen inguruan. Udal erabilera guztiak eraikin bakar batean zentralizatzeak, egungo udal eraikin txikien sakabanaketarekin bukatuko luke.

Ibai alboko espazioa

Kanttoipeko Espazioa


Kafeko Atze

Musika Plaza

Alameda


Itsas Aurre


Arrigorri Hondartza




Ikusirik egun Musika Plazaren traza noraino iristen den eta nola oztopatzen duen Kanttoipeko espazioan, ardatz irudikari bat proposatu da egungo frontoiaren bukaerak ematen duena. Ardatzak ipar-hego norabidea dauka eta erabaki da ardatzaren ekialdera dagoen eremua espazio publiko gisa ulertzea (kanttoipeko espazioari segida emanez) eta proiektuan eraikigarritasuna ardatzaren men-debaldera mugatzea. Oinarri honekin Alamedako eta Kanttoipeko espazio publikoaren arteko lotura hobetu eta azken honi izaera berri bat ematea proposatzen da. Alamedako "berdegune" izaera Kanttoipeko espazioan zehar eramanez. Horrela, Musika Plazak duen izaera gogorra Kanttoipeko espazioak edukiko lukeen "berdegune" izaerarekin parekatuko litzateke. Gainera, Kanttoipeko espazio publiko berriak Musika Plaza azpian proiektatuko den ekipamendu publikoarekin elkarrekintzan egongo da.


Ezarritako ardatzak, ekialdeko aldean utziko luke egungo igogailua, erdian inongo erreferentzia gabe, eta ondorioz hau lekualdatzea erabaki da elizaren beste aldera, eraikinei atxikita (V-atalean gehiago azalduka da).







Frontoiaren luzeran eta barnealdeko horman proiektuan duen muga ezartzeko mikropilote bidezko horma bat proposatzen da, hauek jarri ahala barnealdeko guztia hustutzen joateko.





Eraikigarritasuna mugatzeko 3 ardatz irudikari nagusi erabili dira gehienbat. Hegoaldera frontoiak berak mugatuta gelditzen da eremua. Aurreko atalean (IV.2) aipatu bezala, ekialderantz frontoiaren bukaerak sortzen duen ardatz irudikariarekin mugatuta gelditzen da. Mendebaldeko muga egun mendiak daukan forma kurboak mugatuta gelditzen da. Eta azkenik, iparraldeko muga Hondartzako Zubiaren ardatz irudikariak mugatzen du, bukaera bat emanez eraikigarritasun espazio posibleari. Horrela, 4 aldetara mugaturik 1000 m2 inguruko espazio eraikigarri bat lortzen da, Plan Bereziak ahalbidetzen zuen bezalaxe.







Proiektuaren esku-hartzearen oinarrietako bat frontoiari emaniko trataera da. Historian zehar eduki duen garrantzia ikusirik bere hasierako traza bereganatzea proposatzen da, eraikigarritasunaren mugak errespetatuz. Aurretik aipatu bezala egungo frontoiaren mugan lerro irudikari bat ezarri da bertatik ekialderantz publikoaren segida hobetzeko. Hala ere frontoiaren luzapena proposatzen da hegaldura bat bezalaxe espazio publikoaren gainetik.

Frontoiaren luzapen honek Kanttoipeko espazio publikoa egituratzeko balio du, baita aterpe bat sortzeko eta gainera. Musika Plaza azpian sortuko den eraikin publikoaren harrera gune estali funtzioa bereganatu dezake. Frontoiaren luzapen hau 3 koadrokoa izango da (12m inguru) eta Kanttoipen proposatuko den "berdegune" espaziotik ikusgai egongo da, antzina pilotalekuak herrian zeukan garrantzia bereganatuz.


*Kale gaineko frontoi luzapenaren ideia 1907ko 3-frontoi eta plazaren proiektutik eratorri da. Egungo Kanttoipeko kaleetik etxebizitzetarainoko luzapena proiektatzen zuten, frontoia zeztan jokatzeko egokia izateko.






Musika Plaza azpian proposaturiko ekipamendu publikoak bi programa nagusi bereganatuko ditu, alde batetik merkatua eta bestetik herrirako areto publikoa. Merkatua espazio malguagoa da eta ez dauka aretoak bezalako izaera nagusirik. Azken honek, bere presentzia nabarmentzea eskatzen du eraikin bolumetrikoki bat sortuz. Azken honen kokapenerako eremua Alde Zaharreko gainerako etxadien norabidea aztertu ondoren zehaztu da, baita ardatz irudikari batzuk kontuan edukiz. Eraikin bolumetrikoki honek Musika Plazako horizontaltasunarekin harremanean egongo da kontraste bat sortuz elementu horizontal eta bertikalen artean. Eraikin bolumetrikoki honek ekipamendurako sarrerara nagusi bat emateko balio du eta baita goialdean areto txiki bat edukitzeko.


*1908an Musika Plaza eraiki zeneran, bolumena kokatuko den puntuan plazaren hegaldura bat zegoen, azpian aterpe bat sotuz. Bolumenaren kokapenarekin antzinako "aterpe" ideia bereganatu nahi da bolumenak puntu horretan harrera funtzio bat izanez.





Proiektuaren esku-hartzearen oinarrietako azken puntua Musika Plazak daukan kota aldaketa eta beste espazioekiko lotura/harremanak sortzeko estrategiak dira. Azken 150 urtean Musika Plaza zokalo baten gainean egon da, talaia bat sortuz beheko sarearen gainean. Proiektuan talaiara igotzeko harremana hobetzea proposatzen da Musika Plazaren eta Alamedaren artean harmaila antzeko bat sortuz. Harmaila honek espazio biak zuzenki lotuko lituzke eta gainera harmaila itsasorantz begira kokatuko litzateke, bi espazioen arteko erdigunea izanez. Honez gain, eraikin bolumetrikoan igogailua proposatuko da irisgarritasuna hobetuz goi eta behe artean.

Harmailaz gain, plazari koxka bat egitea proposatzen da, kanttoipeko espazio publikoa plaza azpiko ekipamendurantz sartuz eta honen argiztapena hobetuz. Gainera, plazaren zurruntasunari bizitasun bat ematen dio muga sigi-sagitsuak. Azkenik, egun igogailua dagoen tokiaren parean, eskailera batzuk proposatzen dira elizaren oinarrien arkuen azpialdetik, ibilbide eta komunikazio anitzak proposatuz plazara igotzeko.



Aurreko atalean aiputako estrategietaz baliatuz Musika Plazako berregituraren proiektuaren emaitza dugu ondorengo hau. Kokapen plano honetan ikus daiteke proiektuaren interbentzio eremu osoa, elizaren ingurua bereganatuz. Araudiak mugatzen zuen interbentzio eremuaren mugak zabaldu dira proiektua osotasunean borbiltzeko. Elizaren oinarri inguru guztian espazio publiko berde bat proposatzen da, Kanttoipeko espazio publikoa osotasunean ulertuz, eserleku ugariarekin eta zoladura jarrai batekin.

Espazio publikoekin jarraituz, beste bi txikiago proposatzen dira. Lehenengoa bolumenaren aurrealdean sarrera espazio gisa iturri bat ardatz duela eta bigarrena Iparragirre kaleen bidegurutzeei "plaza" izaera emanez, Musika Plazarako sarrera espazio gisa.

Musika Plazaren muga ez litzateke egungo moduko zurruna izango. Frontoiaren luzapenak, ekipamendua argizatzeak eta plazarako harreman/komunikazio/ibilbideek eratorritako muga siga-sagatsua izango litzateke, plazaren bizitasunari lagunduz. Muga hori emango duen plazako baranda, zonalde batzuetan eserleku gisa funtzionatzea proposatzen da, plazako

Bestalde, aurreko atalean aipatutako igogailuaren leku aldaketa ikus daiteke, elizaren beste aldean etxebizitzetxi atxikia. Igoigailu elementua beste eraikin bertikal batzuen parean geldituko litzateke, egun daukan izaera indartsua gutxituz. Aktuazio honekin etxebizitzaren egitura sendotzeaz gain, etxeen handipen txiki bat proposatzen daie (6m² ingurukoa) beraien fatxadari elementu bat atxikitzearen trukean. Igoigailuak elizaren ate parera emango luke, egun betetzen duen funtzioa mantenduz.



Øndorengo planoan proiektuaren altxaera orokorrak ikus daitezke. Bai Musika Plaza bai bolumen berria inguruan integratuta geldituko liratezke. Hala ere, hauen presentzia material eta forma ezberdinen bitartez lortuko litzateke.

Kale maila, ekipamenduaren behe oinean, fatxada garden bat proposatzen da, oihal horma modulatu bat zehazkiago. Fatxada garden honek plazarara ateratzen den bolumen zurrunarekin konbinatuko litzateke. Bolumenaren goi aldeko fatxada, aurrefabrikatuzko hormigoi armatuz zurizko piezez egingo litzateke, sendotasun bat emanez bolumenri.

Ekialdeko altxaeran proiektua bere osotasunean ikus daiteke, fatxada nagusiak azalduz. Irudian, elizarekin eta inguruko etxebizitzekin daukan harremana ikus daiteke. Baita, Kanttoipeko espazio publiko berriaren izaera eta eliza azpiko arkutik plaza igotzeko proposaturiko eskailera. Beste aldean, bolumenean eraikinerako harrera/sarrera ikus dezakegu, eraikinerara sartzeko keinua eginez.


Iparaldeko altxaeran eraikineko harrera/sarrera nabarmentzen da, bolumenaren erapinaren erdia hartuz eta oihal hormaren bidez bereiziz. Bolumenak Iparragirre kalea mugatzen du, plazarako bidea eginez.

Mendebaldeko altxaerak bolumenaren atzeko aldea erakusten digu, Iparragirre kalearen ebaketa baten bitartez. Bertan bolumenaren zurruntasuna ageri zaigu eta baita kale honetatik barnera sartzeko daukan sarrera bolumen txikiagoa eta itzaroteko eserlekua (kota aldaketari aurre egiteko).


*Hurrengo orrialdean bolumenaren ikuspegi orokor bat azalduko da, proiektu osoa ikusteko aukera emanez.




Iparaldeko altxaera





Mendebaldeko altxaera






1 KALE IZAERA



IV. atalean azaldu da eraikigarritasuna finkatzeko erabilitako estrategiak. Eremuak daukan kokapena ikusirik kale izaera daukan eraikin bat proposatzen daa, eraikinago baino kaleago dena. "Fatxadarik gabeko" eraikina izango da ingurura moldatzen dena eta bere barnetik kale izaera integratzen duena. Horrela, eraiknak barnean hartuko dituen programez gain, kale estali funtzioa izatea proiektatzen da.

2 ERABILERA MALGUA




Erabilera malguko ardatza


Kale izaerako ekipamenduak, erabilera anitz bereganatu behar ditu eta ondorioz ardatz bat proposatu da bertan programa desberdinak lantzeko aukera izateko.

Hasieratik aipatu bezala, herriko beharrek merkatu eta areto baten eskatzen dute, baina eraikinak, huez gain beste hainbat betetzeko aukera ematen du erabilera malguko ardatzaren inguruan. Erabilera horien artean, merkatua, azoka, aretoa, zinema sala txiki bat, erakustokia, aisi gune estalia... egongo liratezke.


3 MUGIMENDUA



A_Merkatuko modulu mugikorrak



B_Harmaila teleskopikoa



D_Eszenatoki mugikorra

Erabilera malguko ardatzean programa desberdinak lantzeko, elementu mugikorren erabilera proposatu da, funtzio anitz eduki ahal dituztenak. Eraikineko programa gehiena ardatzaren gainean garatuko da eta ondorioz ardatza libre uztea proposatzen da eta behar denean soilik elementu mugikorrez okupatzea. Elementu hauen artean merkatuko modulu mugikorrak, harmaila teleskopikoak eta eszenatoki mugikorra daude. Elementuen mugimendu honek eta eraikinaren erabilera malguk, etengabe mugimenduan egongo den eraikin batean bilakatuko duta, herriko ekitaldi nagusiak bere barne hartuz eta erdigune izaera bereganatuz. Ondorioz, eraikina "Non Stop Building" bat izango litzateke, etengabe mugimenduan dagoen eraikina.

Øndorengo planoan eraikina-
ren eskema funtzionala azaltzen da
bai oinean bai ebaketan.

Eraikinak daukan kale izaerak
eta erabilera anitzek, eraiki-
na mugimenduan egongo den ardatz
baten inguruan sortze dakar. Hori
horrela, aisi gune estali moduan
funtzionatu dezakeen ardatz horretan
garatuko dira eraikineko pro-
grama desberdinak. Ardatzak 8m
zabal izango ditu eta bi sarrera
nagusi izango ditu bi muturretan.
Horietako lehena frontoiaren luza-
penaz sortutako aterpetik egingo
da eta bestea Alamedaren paretik.
Ardatzen bukaeran harrera gunea
eta harmaila teleskopikoak egongo
dira.


Jende asko bilduko den erai-
kin bat izanik, ardatz nagusiaren
kale aldeko izkinan larrialdietara-
rako pasabide bat proposatu da
1,5m zabal dauzkana, hainbat
irteera izanez bere luzeran zehar.

Ardatzatzairen eta atzealde-
ko mugaren artean merkaturako modulo
mugikorren aparkalekua, bilte-
giak, merkaturako 4 postu finko,
eszenatoki mugikorra mugitzeko
makina gela eta bolumenaren eta
ardatzaren arteko lotura espazioa
egongo liritezke.

Musika Plaza igotzeko har-
mailen azpian, makina gela eta
komunak kokatuko ziren. Hauen eta
ardatzaren artean egongo da behe
eta goi kotak komunikatuko dituen
igogailua, eraikinaren sarrera
alboan.

Bolumenaren erpinean,
aurretik aipatu bezala eraikineko
sarrera nagusia egongo da, erakus-
toki edo aretorako sarrera gune
gisa funtzionatu dezakeena.

Ebaketan ardatza eta bolu-
menaren arteko erlazioa ikus daite-
ke. Bolumenaren goiko solairuan
zinema areto txiki bat kokatuko da
eta ardatzako harmaila teleskopi-
koekin bat egiteko aukera izango
du. Eszenatokia, ardatzaren erdian
kokatuko da, bai plaza azpiari bai
Musika Plazari zerbitzu emanez.



LEGENDA

- _A_Modulu mugikorrak
- _B_Harmaila mugikorrak
- _D_Eszenatoki mugikorra
- _Harrera gunea
- _Aisi gune estalia
- _Merkatu finkoa
- _Harmaila finkoak
- _Makina gelak
- _Biltegiak
- _Komunak
- _Larrialdietarako bidea
- _Espazio zerbitzariak
- _Komunikazio bertikala

Behe solairuko oin honetan merkatu+azokako egun baten ikuspegi ikus genezake. Ardatzean zehar merkatuko postu mugikorrek ezarri dira, baita azokarako mahai mugikorrek postuak. Merkatu izaera izateaz gain kale izaera ere badauka. Bolumenaren erpineko sarrera-espazioa erakusketa areto gisa erabili ahalko litzateke, eraikinetik kanpo bere alboan existitzen denarekin erakustoki multzo bat osatuz.

Kanpo espazioari dagokionez, Kanttoipeko plaza eraikinera sartzea proposatzen da zoladura berdina jarriz eta eraikinaren fatxadan oihal horma bat proposatuz ireki ahal dena. Kanttoipeko espazioak loronti berdeak eserleko gisa baliatuko ditu eta erdialdean frontoiaren luzapenaren aterpea egongo da. Aterpe honetan udan azoka jarri ahalko lizateke edo bestela karga eta deskarga egiteko leku egokia litzateke.

Aterpearen albotik plaza-rako eskailerak proposatzen dira eliza arku azpitik, behe aldean bizikletentzako aparkaleku bat utziz.

Zeharkako ebaketa merkatua

Luzetarako ebaketa merkatua





Goiko solairuko oin honetan areto osoa jartzean geratuko litzatekeen oina ikus genezake. Bertan, 250 pertsona ingururentzako aretoa ikus genezake goiko zinema areto txikia beheko harmaila teleskopiko irekiekin osatzen denean. Eszenatoki atzea egin ahal izateko, erabilera anitzeko merkaturako bi modulo erabiliko ziren, kamerino bezala ere funtzionatu ahal dutenak.


Goiko aretoak bi sarrera dauzka alde bietatik. Iparragirre plaza ematen duenean eserleku bat proposatzen da Musika Plazak sortzen duen zokaloaren kota aldaketan babes funtzioa egiteko. Honen aurrealdean Iparragirre plaza osatuko lukeen zokalo bat proposatzen da aurreko etxebizitzan behe oinen aurrealdean, bertan negozioak kokatzeko eta Musika Plazaren sarrera zerbitzari moduan funtzionatzeko.

Bestalde, merkaturako behe oinean espazio estaliak izan ditzazkeen erabilerak beraganatu ahal ziren.


*0in honetan behe solairua ez litzateke agertu beharko baina aretoaren osotasunaren ulermenerako errazagoa delakoan jarri da.








Luzetarako ebaketa honetan behe oinean erakusten zen erabilerak agertzen dira: merkataria, erakustokia eta zinema areto txikia. Musika Plazan pilotalekuaren garrantzia nabarmentzen da eta harmaila ez finko batzuen aukera ematen da momentu jakin batzuetan behar izanez gero.




Luzetarako bigarren ebaketa honek goiko oinean azaltzen ziren erabilerak erakusten dizkigu: aretorako sarrera espazioa, areto nagusia eta espazio estalia. Eszenatoki mugikorra baliatuz, posible izango litzateke Musika Plazan kontzertuak ematea, plazaren zabaltasuna erabiliz.







Ebaketa fugatu honetan merkatuaren bizitasuna eta plaza-ren zabaltasuna ikus dezakegu.

*Plano honetan 2 fuga puntu erabili dira guztia ikusi ahal izateko: bat eraikinaren barnerako eta bestea plazarako.





Ebaketa fugatu honetan areto osoaren dimentsioak ikusi ahal dira. 8m zabal izango lituzke ia luzera osoan 250 pertsonentzako eserlekuak izanez, baita gurpildun aukientzako. Horrez gain, goiko zinema areto txikia itxi egin ahalgo litzateke tabike mugikor baten bitartez eta beheko zatiko harmaila teleskopikoak bildu egin ahalgo ziren.

AZOKAKO POSTUAK E 1/75



ERABILERA ANITZEKO MODULUAK



LEGENDA


Pertsiana



Erdirainoko armairua



Sabairainoko armairua




Erdirainoko erakustokia



Sabairainoko erakustokia




Euste puntuak




ERABILERAK


- _Bilera tokia
- _Atseden gunea
- _Postu izaera
- _Kamerinoa
- _Eszenatoki atzea
- _Irakurgela
- ...









A.1 A.2



B








D





Aurreko orrialdeetan merkatuko modulo ezberdinen planoak aurkeztu dira. Guztira 6 modulo egongo dira, 2 erabilera anitzekoak eta 4 merkatukoak. Hauxe gain, azokarako moduloak egongo dira. Merkatuko moduloen artean, 3 motatakoak egongo dira, irekitze mota ezberdinak izanik.

Modulu guztiak modu berean eraikiko dira, despiezean ikus daitekeen bezalaxe. Material aldetik, hormigoizko eraikinarekin kontraste bat sortuko dute, egurrezko sandwich panelak erabiliz. Egitura arinak izango dira gurpil gainean mugituak.



EBAKETA OSOA



LEGENDA

- ALTZARIAK**
- AL.01_Eserlekua
 - AL.02_Eserlekua eusteko puntuak
 - AL.03_Argiztapen instalazio bandeja
 - AL.04_Ur-hornikuntza instalazio bandeja
 - AL.05_Klimatizazio instalazio horiak
- ESTALKIA**
- ES.01_Hormigoizko baldosa hidraulikoa
 - ES.02_Morteroa
 - ES.03_Isur-harri metalikoa
 - ES.04_Isolamendua
 - ES.05_Lamina iragazgaitza
 - ES.06_Juntura
 - ES.07_Hormigoi arindua malda egiteko
 - ES.08_Lurrun hesia
 - ES.09_Hormigoi blokeak
- FORJATUA**
- F0.01_Hormigoi armatuzko bi norabidetako laua
 - F0.02_Uztaila
 - F0.03_Igeltsuzko sabao faltsu erregistragarria
 - F0.04_Igeltsuzko sabao faltsu ez erregistragarria
- FATXADA**
- FA.01_Aurrefabrikatuzko hormigoi armatu zurizko plakak
 - FA.02_Fatxadako plakak eusteko egitura metalikoa forjatuan eutsi
 - FA.03_Fatxadako plakak hutsarteetan eusteko leihoburu metalikoa
 - FA.04_Banda elastikoa
 - FA.05_Igeltsu plaken egitura metalikoa
 - FA.06_Isolamendua
 - FA.07_Igeltsuzko plakak
- HUTSARTEA**
- HU.01_Aurremarko langeta
 - HU.02_Markoa
 - HU.03_Leihoak mugitzeko errailak
 - HU.04_Beira hirukoitza
 - HU.05_Banda elastikoa
 - HU.06_Zutoin eta fatxada plakak eusteko egitura metalikoa forjatuan eutsia
- SOTO-HORMA**
- S0.01_Hormigoiez betetako altzairuzko mikropilotea
 - S0.02_Hormigoi armatuzko erdi-horma zapata jarraiarekin
 - S0.03_Hormigoi blokeko fabrika armatua
 - S0.04_Drenaia tutua
 - S0.05_Morteroa
 - S0.06_Iragazgaitza
- ZIMENTAZIOA / EGITURA**
- ZI.01_Mikropilote burua
 - ZI.02_Hormigoi armatuzko entzepatua
 - ZI.03_Arriostramendua
 - ZI.04_Hormigoi armatuzko zutabea




AZALPENA


Eraikuntza ebaketa honetan eraikin bolumentrikoaren fatxadaren detaile ikus daiteke. Eraikin bolumentrikoak 2 solairuko altuera dauka eta aztealdeko hormari itsatsita dago osotasunean ebaketan ikus daitekeen bezalaxe.

_Soto-horma mikropilote bidez egingo da eta bigarren horma batez baliatuz (hormigoizko blokez eginiko fabrika armatua), soto-hormatik filtratuko diren urak batuko dira.

_Eraikin bolumentrikoaren fatxada, aurrefabrikatutako hormigoi zuri armatuzko plakez/piezez egingo da. Pieza hauek solairutik solairura joango dira eta bigarren mailako egitura metaliko batzuek baliatuz eutsiko dira bi puntutan. Hutsarteetako kasuetan, dintel bat jarriko da alboko plaka bietan eutsiz.

_Eraikinaren zimentazioa mikropilote bidez egingo da, eraikinak ibai/itsasoarekin daukan gertutasuna kontuan izanda.






AZALPENA

Eraikuntza ebaketa honetan Musika Plaza azpiko espazioen beirazko oihal-hormaren detaile ikus daiteke.

_Bai oihal horma bai hutsarte guztiak modulazio baten bitartez proiektutuak izan dira (2m zabal). Modulazioa bi zutoin eta 3 langetaz osatua egongo litzateke, 4 lihoz osatutako moduluak sortuz (bi goian eta bi behean 0,9m zabal ingurukoak bakoitza). Eskubiko ebaketan oihal horma mugikorren detailea azaltzen da. Beraietan, modulazioko behealdeko pieza errail batzuen bitartez igo egingo litzateke zutoinetan egongo diren motor txiki batzuen bitartez.

_Musika Plazan bertan eta bolumenaren estalkian material berdinak erabili dira. Estalkiko zoladura hormigoizko baldosa hidraulikoz egingo da. Bestalde, Musika Plazako baranda ere, hormigoi armatuzko pieza aurrefabrikatuz egingo da, kasu batzuetan eserleku funtzioa izanik, eta baita argiztapena ere.

ES.01
ES.02
ES.04
ES.05
ES.02
ES.07
ES.08



LEGENDA

ESTALKIA

- ES.01_Hormigoizko baldosa hidraulikoa
- ES.02_Morteroa
- ES.03_Erreten ezkutu lineal metalikoa
- ES.04_Isolamendua
- ES.05_Lamina iragazgaitza
- ES.06_Juntura
- ES.07_Hormigoi arindua malda egiteko
- ES.08_Lurrun hesia

FORJATUA

- F0.01_Hegaldura
- F0.02_Norabide bakarrek horrigoi armatuzko forjatua, "in situ" egina
- F0.03_Hormigoi armatuzko habea

FATXADA

- FA.01_Zokalo metalikoa
- FA.02_Hormigoi aurrefabrikatuzko baranda eserleku elementua
- FA.03_Baranda eusteko egitura metalikoa forjatuan eutsia
- FA.04_Eserleku azpiko argiztapen lineala

HUTSARTEA

- HU.01_Aurremarko langeta
- HU.02_Markoa
- HU.03_Leihoak mugitzeko errailak
- HU.04_Beira hirukoitza
- HU.05_Banda elastikoa




ZORUA




- Z0.01_Junta
- Z0.02_Hormigoizko zoladura
- Z0.03_Isolamendua
- Z0.04_Zolarria, hormigoi armatuzkoa
- Z0.05_Garbiketeta hormigoia
- Z0.06_Legarra


Z0.02
Z0.03
Z0.04
Z0.05
Z0.06




Z0.06


LEGENDA


- _Pilote horma 
- _Karga-horma 
- _Erdi-horma 

- _Zutabeak 
- _Hegaldurarako zutabeak 
- _Eskailerako zutabeak 

- _Arriostramendua 

- _Zimentazio losa 
- _Zapata jarraia 
- _Pilotedun zapata 



- _Zolarria 



AZALPENA

Eraikinaren zimentazioa aztealdeko hormaren sorrerarekin hasten da, mikropilote bidez eraikia. Eraikinak ibaia eta itsasoarekiko duen gertutasuna ikusirik, egituraren zimenduak sakonak izatea proposatzen dira, mikropiloteak erabiliz eginak.

Behean azaltzen da zimentazio prozesua.



ZIMENTAZIO PROZESUA E 1/1000

1 Atzealdeko hormaren eraikuntza mikropilote bitartez

2 Eremuaren hustuketa atzealdeko horma agerian utziz

3 Mikropiloteen, zimentazio losen eta zapata-jarraien eraikuntza

4 Mikropiloteen entzepatuen, zutabeen eta hormen eraikuntza



5 Zolarriarren eraikuntza

LEGENDA

- _Pilote horma
- _Karga-horma
- _Zutabeak
- _Hegaldurarako zutabeak
- _Eskailerako zutabeak
- _Habeak
- _Uztailak
- _Habexkak
- _Bi norabideko lauza
- _Hegaldura

AZALPENA





Eraikinak hormigoi armatuzko egitura portikatu bat dauka, 10 portikoz osatua. Zutabeek 30x50-eko dimentsioak izatea proposatu da. Bi motatako solairuak proiektatu dira: norabide bakarrekoak (espazioaren norabidea markatuz) eta bi norabidetako lauza. Solairu mota bakoitza proiektuaren eskarien arabera kokatu da.





_Lehen solairuko forjatua

_Teilatuko forjatua

LEGENDA

- _Extintore+pultsagailua 
- _Seinaleztapena horman 
- _Larrialdietako argiak 
- _Seinaleztapena lurrean 

- _Irteera bide nagusia 
- _Irteera atekak 

AZALPENA

Suteen instalazioa egiteko orduan eraikinaren ezaugarriak kontuan eduki behar izan dira. Erabilera anitzeko espazio bakar moduan har daiteke eraikina (sektore bakarra) eta bertan jendetza handia batu daiteke. Ondorioz irteera gune ugari proposatu dira eta baita seinale, extintore, larrialdietako argi...

Lehendabizi aipatu behar da eraikinaren behe oinean larrialdietarako uztitako pasabidea. Zonalde hau ez da sekula elementu mugikorrez okupatuko eta libre utziko da larrialdietarako irteeretara ibilbidea errazteko. Pasabide hau lurreko eta hormako seinaleztapenarekin identifikatu daiteke, eta gainera, bertan kokatuko dira extintore, pultsagailu eta larrialdietarako argi gehienak, jendea bertara bideratuz. Pasabide honek 3 irteera atetara eramatea proposatzen da eta 1,5m inguruko zabalera izango luke. Behe solairuan eraikinak dituen irteera kopurua kontuan harturik (4 puntu), ibilbide luzeena 50m-koa izan beharko luke gehinez, baina planoan ikus daiteke ibilbiderik luzeena 25m-koa dela. Sarrera espazioan ere bi irteera (2 fatxadetan) egongo dira.

Lehen solairuan areto finko baten erabilera proposatzen da. Bertan 100 pertsona inguru bilduko dira eta bi irteera izatea proposatzen da. bolumenaren bi aldeetatik.

_Behe solairua

_1.Solairua



LEGENDA

Klimatizazio tutuak
 _Inpultsio tutuak
 _Expultsio tutuak
 _Tutu erradiatzailea

Errejilla motak
 _Inpultsio handia
 _Inpultsio txikia
 _Expultsio handia
 _Expultsio txikia
 _Erradiazioa

Makinaria
 _Haizegailua+bero berreskuratzailea (aireztapena soilik)

-A.T.U. (Aire Tratamendu Unitatea)

-Erretzailea (Berokuntza sistema, gas-aren bitartez)

E.

AZALPENA



Klimatizazio instalazioa egiterakoan bi estrategia aukeratu dira eraikinaren zonaldearen arabera. Klimatizatorako erabilgaitako makinaria guztia makina gelan kokatu da.

Alde batetik merkaturatzen den espazioan aire bolumen guztia ez klimatizatzen erabakia hartu da. Ondorioz aireztapen mekanikoko instalazioa proposatu da eta espazioa kalefaktatzeko tutu erradiatzaile baten bitartez egitea erabaki da. Azken honen funtzionamendua hurrengoa da: makina gelan kokatutako erretzailean sortzen da beroa eta tutu baten bitartez garraitzen da. Tutuan erradiazio bidez beroa ematen du eguzkiak bezalaxe baina ez du airea berot-







Beste aldetik, eraikinaren gainerako zatia guztiz klimatizatzea proposatzen da sistema bakarrarekin, ATU (UTA erderaz) bat erabiliz. Azken honek 3 zirkuitu nagusi izango ditu: espazio bikoitzerako, sarrerarako eta lehen solairurako.



_Behe solairua






_1.Solairua





LEGENDA

- Ur-hornikuntza
- _Arketa 
- _Andela 
- _Koadroa 
- _Pellet galdara 
- _Ur hotz tutuak 
- _Ur bero tutuak 

- _Lerro jarriak sabaitik 
- _Lerro ez jarriak goragoko sabaitik 

- Hondakinen kudeaketa
- _Zaborrontzi organikoa 
- _Errefusa zaborrontzia 
- _Plastiko zaborrontzia 
- _Paper/kartoi zaborrontzia 
- _Beira zaborrontzia 

- Zaborrontzi motak
- _Eraikineko orokorra 
- _Erabiltzaileenak 


AZALPENA

Ur-hornikuntza instalazioa ekipamenduko makina gelan hasten da. Bertara iristen da ura eta bertatik bideratzen da behar den gune hezeetara (bai ur hotza bai ur beroa). Ur-hornikuntza instalazioak 3 komun, 4 merkaturako postu finko eta ur puntu osagarriak hornitzen ditu. Makina gelan kontagailuak kokatzen dira, eta bertan 5 adar desberdinetan banatzen da: ekipamendua orokorrerako adarra eta beste 4 postuetarako. Bestalde, ura berotzeko Pellet galdara erabiliko da, legez ezin baitira eguzki panelak eraikinaren sabaian jarri.

Eraikinaren ezaugarriak ikusirik, hondakinen edukiontzien kokapena zehaztu da. Une batzuetan merkatu izaera izango duenez eraikineko edukiontzi orokorrak proposatzen dira moduluen aparkalekuaren atzealdean (mugikorrek izango dira). Bestalde, eraikinak erabilera anitzeko kale izaera bat duenez erabiltzaileentzako hondakin edukiontzi txikiagoak proposatzen dira eraikinean zehar banatuak.

_Behe solairua

_1. Solairua



LEGENDA

- Ur-fekalak
- _Zorrotena
- _Saneamendu puntuak
- _Bilketa lineala
- _Bideraketa hodiak
- _Arketa
- Euri-urak
- _Zorrotena
- _Bideraketa hodiak
- _Arketa
- Hormako dreñaia
- _Hormako tutu lineala
- _Bideraketa hodiak


AZALPENA

Saneamendu instalazioa 3 zatitan banatua egitea proposatzen da: ur fekalak, euri-urak eta hormako dreñaia.

Ur-fekaletako instalazioak ekipamenduko gune hezeetako saneamendu puntuak lotzen ditu, eta baita espazio nagusiko zoruaren proiektatzen den bilketa linealeko saneamendua.





Euri-uren instalazioa Musika Plazan eta eraikin bolumetrikokoaren teilatuan pilatutako urak bideratzeko proposatzen da.

Dreñaia sistemaren bitartez mikropilote horman filtratutako ura bilduko da, instalazioaren amaieran euri-urekin batuz.



LEGENDA

Sabaian kokatutako argiztapena

- _Argi difuso handia 
- _Argi difuso txikia 
- _Argi puntual handia 
- _Argi puntual txikia 

Horman kokatutako argiztapena

- _Argi puntuala 


Erregulazio eta kontrol elementuak

- _Etengailua 
- _Etengailu bikoitza 
- _Detektorea 

AZALPENA

Argiztapen instalazioa egiterakoan 5 luminaria mota erabili dira, proiektuan sortutako espazio desberdinen arabera. Luminaria horietatik 4 sabaian kokatzekoak dira eta azken bat horman.

Erregulazio eta kontrol elementuetan etengailu sinple eta bikoitzak eta detektoreak erabili dira. Espazio handi eta nagusien kontrol guneetako etengailue-tatik piztu/itzaltzen dira. Gainerako espazioek detektoreak dauzkate.



_Behe solairua


_1. Solairua

LEGENDA

Argiztapena
 _Argiztapen puntuala
 _Eserleku azpiko argiztapena






Euri urak
 _Zorrotena
 _Bideraketa hodiak
 _Hustubidea
 _Erretan lineala









AZALPENA


Musika Plazako euri-urak ezkutatutako erretan lineal baten bitartez batzen dira, ondoren zorrotenetatik jaisteko. Estrategia bera proposatzen da bolumenaren estalkiko euri urak batzeko.

Plazako argiztapena egiterako orduan, barandila eserlekua- ren aspikaldean luminaria lineala kokatzea proposatzen da, baita harmailetan eta Kanttoipeko espazio publikoko lorontzi-eserleketan. Hauetaz gain, frontoiaren eta eraikin bolumetrikokoaren goikaldean argiztapen puntuak proposatzen dira, baita plazaren erdian ere, guztia argiztatuz.









Bizkaiko Foru Artxiboa

_159/20

(1886.urtea)

2.frontoiaren oin planoak

_ONDARROA 66/009

(1904_1908.urtea)

2.frontoiaren ingurko informeak eta 3.frontoi+plazako memoria

_R.00160/006

(1907.urtea)

3.frontoi eta Musika Plazako proiektua (oin, ebaketa eta altxaera planoak)

0ndarroako Udal Artxiboa

_147

(1964.urtea)

Udal eta harmailen proiektuaren memoria+planoak

_9482

(1964.urtea)

Udal eta harmailen proiektuaren aurrekontua

Liburuak

_"SAKETIK ERREBOTERA"

"0ndarroako Pilotariak eta pilota kontuak"

0ndarroako Historia Zaleak

_"ONDARROAKO HISTORIA MARRAZKIETAN"

Jose Luis Burgoa eta 0ndarroako Historia Zaleak

Aldizkariak

_"ONDARROA 2001"

0ndarroako Historia Zaleak

_"ONDARROA 2005"

0ndarroako Historia Zaleak

Planoak eta araudia

_ONDARROAKO UDALA

Hirigintza saila